



IRURAKO UDALA

ORDENANTZA FISKALAK 2012

AURKIBIDEA

ORDENANZA GENERAL DE GESTIÓN Y RECAUDACIÓN DE LOS TRIBUTOS Y OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO LOCALES	<u>Página</u>
---	----------------------

ZERGAK

Ondasun hgiezinak	2
Jarduera ekonomikoak	5
Hiri izaerako lurren balio-gehitzea	14
Trakzio mekanikoko ibilgailuak	22
Eraikuntzak, instalazio eta obrak	29

TASAK

Jabari publikoaren okupazioa	33
Zerbitzu publikoak eta jarduerak	40



IRURAKO UDALA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO DITUEN 1 ZENBAKIDUN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araueko 14.3 artikulua ematen dion zilegidura erabiliz, ondorengo artikuluan ezarritako terminoetan finkatzen du Zerga honen karga tasa.

II. GRABAMEN TASA

2. artikulua.

1.-Hiri ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga tasa Eranskinean adierazten den ehuneko hainbestean geratuko da finkatua.

2.-Landa ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga tasa, Eranskinean adierazten den ehuneko hainbestean geratzen da finkatua.

III. OINARRI EZARGARRIA ETA KUOTAK

3. artikulua.

1.- Hiri ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Oinarri Ezargarria, ondasun horien balio katastrala izango da.

2.-Landa Ondasunei aplikagarri den Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Oinarri Ezargarria, erregelamenduz onartutako balio katastrala izango da.

3.-Zerga honen zehaztapena aurreko apartaduetan adierazitako Oinarri Zergagarriari Ordenantza honetako 2 artikuluan bakoitzari dagokion karga tasak aplikatuz lortuko da.

IV. KUDEAKETA ARAUAK

4. artikulua.

1.-Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapena Gipuzkoako Foru Diputazioaren gain eskuorde daiteke, Udal Batzarreak erabakitako terminoetan, edukian eta eremuan, horretarako hitzarmen egokia izenpetuz.

2.-Hartuko den udal erabakia GAO-n emango da argitara.

V. AMAIERAKO XEDAPENA



IRURAKO UDALA

Transkribitatutako Ordenantza Fiskala eta Ordenantzaren zati osagarri den Eranskinean dauden karga tasak, Udal Batzarrak Eranskinean adierazten den datan egindako batzarraldian onartu ziren eta indarrean 2009ko urtarrilaren 1ean sartuko dira, aldatu edo derogatzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuz joango direlarik.

1 zenbakidun ordenantza fiskala, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzekoa.

ERANSKINA

1. KARGA TASA

Hiri izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikatuko zaion karga-tasa %0,1935koa izango da izaera orokorrean.

— Karga-Tasa orokorra: % 0,500

— Lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoan kokatuta dauden ondasun higieziari aplikatuko zaie dagozkien balorazio ponentzien arabera: %0,275; eraikuntzak salbuesita geratzen dira kokatuta dauden ondasun higiezinaren erabilera nagusia industrial edo hirugarren sektorekoa ez denean.

Landalur ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa ehuneko 0,60%koa da.

2. HOBARIAK

Ondorengo hobari fiskalak finkatza:

- C-1 %50eko hobaria zergaren kuota osoan, interesatuek obrak hasi baino lehen eskatuz gero, beti ere interesatuek obrei ekin aurretik hala eskatzen badute, honako ondasun higiezinaren kasuan: obra berrikoak nahiz haiekin parekagarri diren eraberriketakoak, urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inbiliariko enpresek egiten duten jardueraren xede direnean eta haien ibilgetuaren artean ageri ez direnean eta 3 zergaldi baino gehiago ez du gaindituko.

- C.2.- Kuota osoaren 100eko 50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitza berrietarako eta dela proiektuan dela erregistroan, haiei lotuta dauden garaje eta trastelekuetarako, beti ere behin betiko kalifikazioa eman ondoren eta, 5 urtez.

- C-3 Ondorengo hobaria ohiko bizilekuaren gaineko zergaren kuota osoan subjeto pasiboak familia ugarien titularrak direnean:

- Maila orokorrekoei: %50.

- Maila berezikoiei: %75.

Ohiko etxebizitzat joko da subjeto pasiboak Udal Erroldan duen helbidea.



IRURAKO UDALA

- Hobari honen onuradun izateko ondorengo dokumentazioa azaldu behar da:
- Dagokion Administrazioak luzatutako Familia ugarien titulu eguneratua
- Subjetu pasiboaren eta famili ugarien liburuan jasotzen diren kide guztien errolda agiriak.
- Urteko OHZ ordainagiriaren kopia

Hobaria, interesatuak eskatu behar du. Familia ugari egoerak iraun eta familiaren baldintzak aldatzen ez diren bitartean mantenduko da.

Bateraezintasunak:

C.2 eta C.3 hobariak ez dira bateragarriak, beraz interesatuak bien artean aukeratu beharko du.

2008ko urriaren 28an egindako Udal Osoko bilkuran onartu zen Ordenantza Fiskala.

O. E.

ALKATEA

IDAZKARIA



IRURAKO UDALA

EKONOMI JARDUERAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. KAPITULUA: Izaera eta zergagaia

1. artikulua.

1.1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzekoak, eta 1993ko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretuak, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzaileak, batetik, eta, bestetik, gaia garatzen duten gainontzeko arauak xedatutakoa betez, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga arautu eta ordainarazten da.

2. Ekonomi Jardueren gaineko Zerga izaera erreala duen zuzeneko zerga da.

2. artikulua.

1. Udalerri honetan enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritze hutsa egongo da zerga honen pean, jarduera horiek toki jakin batean egin ala ez, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon ala ez.

2. Zerga honen ondorioetarako, meatze, industria, merkataritza, zerbitzu eta abeltzaintzakoak -menpekoak ez direnean- jotzen dira enpresa jardueratzat. Ez dira, beraz, halakotzat hartuko nekazaritza iharduerak, abeltzaintzako menpekoak, basogintza eta arrantzakoak eta beraz horiek ez dira zerga honen pean egongo. Halaber, ez dira enpresa jardueratzat hartuko nekazaritzako ostatuen zerbitzua nekazaritzako, abeltzaintzako edo baso jardueraren osagarria denean.

Horretarako, mantentzat nagusiki ustiaketatik kanpoko jaki eta pentsuak dituzten abeltzaintzako ustiategiak hartuko dira abelazkuntza independientetzat.

3. Jarduera batean, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan parte hartzeko, nor bere kabuz ekoizpen eta giza baliabideak antolatzen baditu, jarduera hori enpresa, lanbide edo arte jitezkotzat joko da.

4. Zergapeko jardueretan aritzea zuzenbidean onargarria den edozein eratan frogatu beharko da eta, bereziki, Merkataritza Kodeko 3. artikuluan eta hemen azaltzen diren moduetako batean:

a) Interesatuak zein bere legezko ordezkariak egindako edozein zerga aitopenen bidez.

b) Interesatuak zein bere legezko ordezkariak eginbide batean, ikuskaritza akta batean nahiz bestelako zerga espedienteren batean aitortuz

c) Ekonomi jarduera badela agerian jarriko duen edozein publizitate mota, hala nola, iragarkiak, idazkiak, eraskuskariak, errotuluak...



IRURAKO UDALA

d) Edozein organismo nahiz enpresaren kontabilitate liburu zein erregistrotatik hartutako datuak; horien arduradunek edo Administrazioak berak sinatuak izan behar dute.

e) Bere kabuz zein zerga ahalmena duen administrazioak eskatuta, edozein agintarik ematen dituen datuak.

f) Beren kasa nahiz Administrazioak eskatuta, merkataritza, industri eta itsasketa elkargo ofizialek, lanbide elkargo eta elkarteek eta ofizialki onartutako gainontzeko erakundeek ematen dituzten datuak.

3. artikulua.

Honako jarduera hauetan aritzeagatik ez da zerga hau ordaindu behar izango:

1. Enpresen aktibo finkokoak izan eta, besterenganatu baino bi urte lehenagotik, ibilgetu horretan behar bezala inbentariaturik egon diren ondasunak besterenganatzea, batetik, eta, bestetik, saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak saltzea, baldin eta bi urte lehenagotik erabili baditu.

2. Lan pertsonalen edo lanbide zerbitzuen ordain gisa jasotako ekoizkinak saltzea.

3. Artikuluak erakustea, establezimendua apaindu edo edertzeko baino ez bada. Bezeroei opari egiteko artikuluak erakustea, aldiz, zergapean egongo da.

4. Txikikazko salmenta denean, eragiketa bakar isolatua egitea.

II. KAPITULUA: Salbuespenak

4. artikulua.

Udalak onartutako salbuespenek eskatu direneko zerga-alditik aurrera izango dute indarra:

1. Hona hemen zerga ordaindu behar ez dutenak:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta udal entitateak, eta, orobat, lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

b) Beren jarduerari ekiten dioten subjektu pasiboak, jarduera garatzen duten lehen bi zergaldietan.

Ondorio horietarako, jarduera batean lehenago beste titularitate batekin aritu bada, jarduerari ez zaiola hasierarik ematen ulertuko da; zirkunstantzia hori betetzen dela joko da, besteak beste, bategiteak, zatiketak edo jarduera adarren ekarpenak egiten direnean.

c) 2.000.000 eurotik beherako eragiketa bolumena duten subjektu pasiboak.



IRURAKO UDALA

Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena lurralde espainiarrean establezimendu iraunkor bidez jarduten dutenei bakarrik aplikatuko zaie, beti ere euren eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa bada.

Edozein kasutan ere, salbuespena aplikatu ahal izateko, ondoko hau ezinbestekoa da: letra honetan aipatzen den eragiketa bolumenik betetzen ez duen ezin enpresak ez edukitzea subjektu pasiboan kapitalean, dela zuzenean dela zeharka, 100eko 25etik gorako partaidetzarik, salbu eta enpresa horiek kapital-arriskuko fondo edo sozietateak edo enpresen sustapenerako sozietateak badira, hain zuzen ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 59. eta 60. artikuluetan aipatuak hurrenez hurren, eta partaidetza hori sozietate horien xede soziala betetzeagatik sortzen bada.

Letra honetan jasotzen den salbuespena aplikatzeko, erregela hauek hartuko dira kontuan:

1. Subjektu pasiboaren eragiketa bolumena maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituna onartzekoak, 14. artikulua bi apartatua xedatutakoari jarraiki zehaztuko da.

2. Errenta Zergaren eta Sozietate Zergaren subjektu pasiboan kasuan, eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, eragiketa bolumena zerga honen sortzapena gertatu baino bi zergaldi lehenago lortutakoa izango da, beti ere zerga horiek aitortzeko epea sortzapenaren aurreko urtean amaitu bada.

Sozietate zibiletan eta Zergen Foru Arau Orokorrek 33. aipatzen dituen entitateetan, eragiketa bolumena zerga honen sortzapena gertatu baino bi urte lehenago lortutakoa izango da.

Zergaldia urte naturala baino txikiagoa bada, eragiketa bolumena urtearekin parekatuko da.

3. Eragiketa bolumena kalkulatzeko, subjektu pasiboak egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Entitatea sozietate talde bateko kide bada Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotakoaren arabera, lehen esandako magnitudeak talde horretako entitateen multzoari buruzkoak izango dira. Irizpide bera aplikatuko da baldin eta pertsona fisiko bat, dela bere kabuz, dela beste pertsona fisiko batzuekin batera (zuzeneko edo zeharkako ahaidetasun harreman batengatik egon daitezke hari lotuak, harreman hori odolkidetasunezkoa edo ezkontza bidezkoa izan, bigarren mailaraino, hau barne), Merkataritza Kodeak 42. artikuluan aipatutako kasuetako batean aurkitzen bada kide den beste entitate batzuei dagokienez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotzen diren kasuak, abenduaren 20ko 1.815/1991 Errege Dekretuak urteko kontu bateratuak formulatzeko onartutako arauak I. kapituluaren 1. sekzioan ezarritakoak izango dira.

4. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkorren multzoari egotzi beharrekoa izango da



IRURAKO UDALA

eragiketa bolumena.

d) Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako gizarte aurreikuspeneko mutualitateak.

e) Ikerkuntzako organismo publikoak, maila guztietako irakaskuntza zentroak, Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Foru Aldundiaren edo udal entitateen fondoekin nahiz ongintzazkoak edo herri onurakoak izendatutako fundazioen baliabideekin osorik finantzatuak, eta, orobat, irabazi asmorik gabekoak izanik, hezkuntza-itunen erregimenean dauden ikastetxeak, beren maila guztietan, baita euren ikasleei liburu edo artikulua eman edo mantenu erdia zein barnetegia eskaintzen dizkietenean ere, nahiz eta salbuesenez baino ez, irakasteko erabilitako tailerretan lortutako produktuak establezimenduan bertan saltzen diren, baldin eta salmentaren zenbatekoa, ezein partikular edo hirugarren batentzat erabilgarria izan gabe, soil-soilik lehengaiak erosi edo establezimenduari eusteko erabiltzen bada.

f) Gutxitu fisiko, psikiko eta sensorialen irabazi asmorik gabeko elkarte eta fundazioak, pertsona minusbaliatuen alde irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta tutoretza mailan egiten dituzten pedagogia, zientzia, laguntza eta enplegu jarduerengatik, baita xede horietara zuzendutako tailerretan lortutako produktuak saltzen badituzte ere, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, ezein partikular edo hirugarren batentzat erabilgarria izan gabe, soil-soilik lehengaiak erosi edo establezimenduari eusteko erabiltzen bada.

g) Martxoaren 24ko 5/1995 Foru Arauak, ekimen pribatuari interes orokorreko jardueretan parte hartzeagatik zerga pizgarriak ematekoak, jasotakoaren arabera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan salbuespenaren zerga onura aitortua duten entitateak.

h) Elkarteen Erregistroan inskribatutako irabazi asmorik gabeko elkarteak, baldin eta udal honekin elkarlanean jarduerak egiten badituzte. Horretarako, udal organo eskudunak herri onurakoak izendatu behar ditu elkarteak.

Salbuespena elkarte horien berezko zeregin diren eta gutxieneko udal kuotarekin zergapetzen diren jarduerari aplikatuko zaie.

i) Salbuespena nazioarteko itun edo hitzarmenen indarrez aplikagarri duten subjektu pasiboak.

2. Artikulu honen 1 apartatuko b), e), f) eta h) letretan jasotzen diren salbuespenek erreguzko izaera izango dute, eta interesatuak eskatuta emango dira, hala badagokio.

III. KAPITULUA: Subjektu pasiboak

5. artikulua.

Gizaki zein zuzenbide izakiek, jaraunspen banatugabeek, ondasun erkidegoek eta, nortasun juridikoa ez izan arren, ekonomi unitate edo ondare berezitu zergagarria osatzen duten gainontzeko elkarteek ordaindu behar dute zerga hau, baldin eta zerga honen pean dauden jardueretakoren bat udalerrri honetan egiten badute.



IRURAKO UDALA

IV. KAPITULUA: Zergaldia eta sortzapena

6. artikulua.

1. Zerga-aldia bat dator urtearekin, jarduera zabaltzeko adierazpenak direnetan salbu, kasu horretan jarduera hasten denetik urtearen bukaeraraino iraungo du-eta; horrek ez du galerazten artikulua honetako 3. zenbakian jasotakoa.

2. Zerga-aldiaren lehenengo egunetik sortzen da zerga ordaintzeko beharra, eta kuotak ezin izango dira murriztu; dena den, jarduera zabaltzen denean, aurreneko eguna ez bada urtearen lehena, jarduerari ekin zaionetik abenduaren 31 arte dagoen hilabete kopuruaren arabera aterako da kuoten zenbatekoa.

3. Jarduerari uzten bazaio, zerga-aldiak urtarrilaren batetik jarduera amaitzeko adierazpena aurkezten den egunera arte iraungo du. Horrelakoetan, zerga ordaintzeko beharra zerga-aldiaren lehenengo egunean sortzen da, eta kuotaren zenbatekoa urtarrilaren batetik jarduera amaitzeko adierazpena aurkezten den egunera arte dagoen hiruhilabete kopuruaren arabera aterako da.

Zenbaki honetan jasotakoa ez da beteko jarduera zabaltzeko adierazpena eta amaitzekoa urte berean egiten badira. Horrelakoetan, jarduera urte hartako abenduaren 31n amaitu balitz bezala jokatu da.

Zerga ahalmena duen administrazioak zergaren erroldetan jarduera bat bere kabuz sar dezake, bertatik atera edo beharrezko aldaketak egin, arauetan ezartzekoak diren modu eta baldintzetan.

4. Ikuskizunen kasuan, kuotak finkatzeko ekitaldiak banan-banan hartzen badira, ekitaldi bakoitza egitearekin batera sortzen da zerga ordaindu beharra. Ekitaldiei dagozkien adierazpenak aurkeztu beharko dira, arau batean ezartzekoa den eran.

V. KAPITULUA: Zerga kuota

7. artikulua.

Kuota finkatzeko zergaren osagaiak jardueraren seinale diren moduloak dira, tarifetan eta jarraipidean zehaztutakoaren arabekoak. Hona hemen zergaren osagai nagusiak: jarritako potentzia, langile kopurua, txandak, eskubide populazioa, ikuskizunetarako lokalen plaza kopurua eta lokaletako azalera.

8. artikulua.

1. Testu Bateratzailean eta xedapen osagarrietan emandako jarraipideen araberako tarifak, batetik, eta bestetik, ordenantzaren eraskinean ageri diren Udalak onartutako koefizientea eta egoera indizea, aintzat hartuko dira zerga kuota ateratzeko.

2. Udallerri honetan egiten diren jarduera guztietarako Udalak ezarritako koefiziente bakarrak udal kuota gutxienekoen gainean ezarri eta aldatu egiten ditu.



IRURAKO UDALA

3. Udalak finkatutako egoera indizeak udalerriko lokalen kokalekuari kalearen kategoriaren arabera balore bat emateko balio du. Indizea koefizienteak aldatutako udal kuota gutxienekoen gainean ezartzen da.

4. Foru Diputazioak gutxieneko kuota gainean ezartzekoa den portzentaia bakar gisa finkatu ahal izango du foru gainordaina.

5. Probintziako kuotei eta estatuko kuota bereziei ezin zaie ezarri ez foru gainordaina, ez koefizientea ez egoera indizea.

8. artikulua.

1. Zerga ezartzeko modua arautzen duen jarraipidea eta zergaren tarifak Zergaren Testu Bateratzailearen eranskin gisa ageri dira, eta bertan honako hauek azaltzen dira:

a) Jarduera ekonomikoen azalpena eta edukina, enpresa, lanbide eta arte jarduera gisa sailkatuta.

b) Jarduera bakoitzarengatik ordaindu beharrekoa, tarifetan eta jarraipidean araututako zergaren osagaien arabera.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauek eta Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetara egokitzeko lege xedapenek, bai eta zerga neurriei buruzkoek ere, tarifak aldatzeko eta kuotak eguneratzeko ahalmena izango dute.

3. Tarifetan ageri diren kuotak honela daude sailkatuta: udal kuota gutxienekoak, probintziako kuotak eta estatuko kuota bereziak.

VI. KAPITULUA: Hobariak

9. artikulua.

1. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak egin ahal izango dituzte:

a) Kuotaren % 50 eta %25eko hobariak, jarduera garatu den bigarren zergaldia amaitu ondorengo lehen eta bigarren urteetan, edozein jarduera ekonomiko hasi eta gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenentzat.

Hobaria aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da jarduera ekonomikoan lehenago beste titularitate batekin aritu ez izana. Jarduera ekonomikoan lehenago beste titularitate batekin aritu dela ulertuko da, besteak beste, bategiteak, zatiketak edo jarduera adarren ekarpenak egiten direnean.

b) Kuotaren % 50eko hobaria enplegua sortzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta udal kuota ordaintzeaz gainera, hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian kontratu mugagabea duten langile kopuruaren batez bestekoa aurreko zergaldiaren aldean %10 gehitu badute.



IRURAKO UDALA

c) Kuotaren %50^a, beren industri jarduerak udalerriko gune jendeztatuenetik urrun dauden lokal edo instalazioetan egitea, dela jarduera hasten dutenetik, dela jarduera tokiz aldatzen dutenean. Hobarria 3 urtez aplikatuko da tokiz aldatu ondoreneko lehenengo zeergaldiaren ondoren.

2. Aurreko letran aurreikusten diren hobariak zerga kuotari aplikatuko zaizkio beti, eta kuota hori ondoko hauek osatuko dute: tarifaren kuotak eta, hala badagokio, 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak 11. artikuluan jasotako koefizienteak eta indizea aplikatzeagatik aldatutakoak.

Hobariak ez dira bateragarriak, beraz interesatuak guztien artean bat aukeratu beharko du.

VII. KAPITULUA: Kudeaketa eta likidazioa

10. artikulua.

1. Urteko matrikula, jarduera zabaltzeko eta amaitzeko adierazpenak, aldaketen jakinarazpenak eta ikuskaritza lanak dira zerga kudeatzeko erak.

2. Ekonomi jarduerak, zergapekoak, zerga zorrak eta, halakorik izanez gero, foru gainordaina jasotzen dituzten erroldez osatutako agiriari deitzen zaio matrikula.

11. artikulua.

Hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eginkizunak:

- a) Matrikula egin eta mantentzea, eta jarduera zabaltzeko adierazpenak kitatzea.
- b) Ekonomi jarduerak kalifikatzea eta aurkeztutako errekurtsuak erabakitzea
- c) Kuotak eta ordainagiriak finkatzea eta errekurtsu eta erreklamazioak erabakitzea.
- d) Probintziako kuotak eta estatuko kuota bereziak kudeatu, kitatu, ikuskatu eta biltzea.
- e) Salbuespenak eman zein ukatu aurretik egin beharreko txosten teknikoa egitea.

12. artikulua.

Hona hemen Udalaren eginkizunak:

a) Kudeaketa, kitapena, ikuskaritza eta bilketa, bai borondatezko zerga-aldian bai premiabidezkoan.

b) Matrikula jendaurrean erakustea eta zergadunari zergari buruzko informazioa eman eta horretan laguntzea.



IRURAKO UDALA

c) Salbuespenak eta hobariak eman zein ukatzea.

d) Bere eskumenerako errekurtsio eta erreklamazioak erabakitzea.

e) Foru Aldundiari matrikula egiten eta mantentzen, ekonomi jarduerak kalifikatzen eta kuotak finkatzen laguntzea, kudeaketa arautzeko itunean jasotako eran zein lankidetzarako finkatzen den beste moduren batean.

13. artikulua.

Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeaketa arautzeko itunean edo, lankidetzarako beste modu bat aukeratuz gero, horretan erabakitakoa bete beharko dute, bata besteari eskumenak emateko, elkarri laguntzeko eta elkarren berri jakiteko.

VIII. KAPITULUA: Betebehar formalak eta zerga arlokoak

14. artikulua.

Zergapekoek, berek zein askietsitako boterea duten beren ordezkariak, honakook aurkeztu beharko dituzte, eredu normalizatuetan:

1. Jarduera zabaltzeko adierazpen bana kuota bakoitzeko -udal gutxienera, probintziakoa zein estatuko berezia. Matrikulan jartzeko behar den guztia agertu beharko dute adierazpenetan, eta zerga hobariak eskatu. Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztuko dizkiote, jarduera zabaldu aurreko hamar egunean.

2. Jarduera amaitzeko adierazpenak eta aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoenak, zerga kontuetan eraginik izanez gero. Gipuzkoako Foru Aldundiari nahiz Udalarari aurkeztu beharko dizkiote, jarduera amaitu zein aldatu eta hilabetea iragan baino lehen.

3. Adierazpenak ez aurkeztea zein epe kanpo aurkeztea huts egite sinpletzat joko da.

AMAIERAKO XEDAPENA.

Ordenantza honek eta bere eranskinak 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak eta indarrean jarraituko dute horiek indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Ekonomi Jardueren gaineko Zerga arautzeko aurreko Ordenantza Fiskala Indargabeturik geratzen da.

ERANSKINA:

Finkatutako gutxienerako kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: 1,75.



IRURAKO UDALA

Udalerriko bide publikoen sailkapena:

Kokapen indizea: 1

Kokatuta dagoen kalearen kategorია: Bakarra (udal eremu guztia)

2008ko urriaren 28an egindako Udal Osoko bilkuran onartu zen Ordenantza Fiskala.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA



IRURAKO UDALA

HIRILURRAREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 3 ZENBAKIDUN ORDENANTZA FISKALA

I.XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.

Udal honek, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauen eta tributuari dagokion Foru Arauetan aurreikusitakoaren arabera Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga ezarri eta exijitzen du, Ordenantza honi jarraiki, portzentajea laukia eta tarifa aplikagarriak dituen Eranskina parte delarik.

2. artikulua.

Ordenantza Udal barruti osoan aplikatzen da.

II.EGITATE EZARGARRIA

3. artikulua

1.-Zergaren egitate ezargarria da ezarraldian zehar hirilurrek izan duten balio gehikuntza, lur horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen denean edo horien gainean jabaria mugatzen denez edozein ondasun eskubide eratu edo eskualdatzen denean.

2.-Eragin hauetara, hurrengoak izango dute hirilurren kontsiderazioa:

Hiri-lurzorua, urbanizagaia egitaraupeko urbanizagarria edo egitaraurik gabeko urbanizagarrian Hirigintza Iharduketarako Egitaraua onetsiko den unetik; zoladuradun bideak edo espaloien xingolaketa izan eta estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta argiteria publiko dituzten lurak eta hiri-eraikuntzek beteta daudenak.

Nekazal legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurak era honetakotzat hartuko dira, beti era zatikapen horrek nekazal erabilera hutsaltzen duenean, horrengatik berberen izaeraren aldakuntzarik jaso gabe, honako zerga honetarako ez bada.

III.MENPEKOTASUN EZA

4. artikulua.

1.-Nekazal izaerako lurrek izango duten balio gehikuntza ez da zerga honen menpe egongo.



IRURAKO UDALA

2.-Zerga honen eraginetarako hurrengoak izango dute nekazal izaerako ondasun higiezinaren kontsiderazioa:

Aurreko artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera hirilurren kontsiderazioa ez dutenek.

IV.SALBUESPENAK

5. artikulua.

1.-Zerga hau ordaindu behar dutenak jarraiko pertsona edo Entitateak direnean, balio gehikuntza salbuetsita daude zerga honetan:

a) Estaturia, Euskal Herriko Autonomi Elkarteak, Lurralde Historikoa eta beraien Administrazio izaerazko Organismo Autonomoak.

b) Udalerria eta udalerririk horren toki entitateak zein udalerririk kide deneko toki entitateak eta beraien Administrazio izaerazko Organismo Autonomoak.

c) Ongintza edo irakaskuntza-ongintza duten entitateak.

d) Gizarte segurantzaren eta legerian aurreikusitakoaren bat etorritik sortutako Mutualitate eta Montepioen entitate kudeatzaileak.

e) Nazioarteko Itun edo Hitzarmenetan salbuespena aintzatetsi izan zaien pertsonak edo Entitateak.

f) Ukitzen dituzten lurrik dagokienez, administrazio emakida lehengoragarrien titularrak.

g) Gurutze Gorria eta beronen berdinezkarri izan eta Lurralde Historikoko araubidez zehaztutako diren entitateak.

2. Era berean, jarraian adierazitako diren egintzen ondorio diren balio gehikuntzak zerga honetan salbuetsita daude.

a) Ezkontze sozietatera egindako ekarpenak, ezkontideen artean, ezkontze sozietatera egindako ondasun eta eskubideen ekarpenen ordain, egindako ondasunen, eta dituzten hartzeko komunak, esleipen eta eskualdaketak.

b) Seme-alaben alde edo ezkontideen artean, ezkontza-baliogabetasun, banantze edo dibortzioaren balizko buruzko epaien betetzeraren ondorioz egin daitezkeen ondasun higiezinaren eskualdaketak.

c) Edozein sortasun-eskubideren eraketa eta eskualdaketa.

V.SUBJEKTU PASIBOAK



IRURAKO UDALA

6. artikulua.

Zergaren subjektu pasiboak ondoren aipatzen direnak dira:

a) Lurren eskualdaketaren edo jabaria mugatzen duten irabazizko gozameneko ondasun-eskubideak eratu edo eskualdatzean, lurraren eskuratzailerak edo ondasun-eskubidea beronen alde eratua izan edo eskualdaketaren jasotzailerak.

b) Lurren eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten kostubidezko gozameneko ondasun-eskubideak eratu edo eskualdatzean, lurraren eskualdatzailerak edo ondasun-eskubidearen eratzailerak edo eskualdatzailerak.

VI.OINARRI ZERGAGARRIA

7. artikulua.

1. Zerga honen oinarri ezargarria, hirilurren balioak sortzapen-unean ageriko jarri eta hogeituro urtetako gehienezko epean zehar hartutako benetako gehikuntza da.

2. Benetako gehikuntzaren zenbatekoa zehazteko sortzapen-unean lurrean balioaren gainean Eranskinean dagoen eskalaren portzentajea aplikatuko da.

3. Artikulu honetako bigarren zenbakiak aipatzen duen portzentajea zehazteko hurrengo erregelok aplikatuko dira:

Lehenena. Zergaren menpeko eragiketa bakoitzaren balio gehikuntza, aipatu gehikuntza agerian gertatu den urte kopurua barruan hartzen dituen aldirako artikulu honetako 2. zenbakian ezarritako urteko portzentajearen arabera zehaztuko da.

Bigarrena. Sortzapen unean lurra duen balioaren gainean aplikatu beharreko portzentajea, kasu jakin bakoitzari aplikatu ahal zaion urteko portzentajea eta balio gehikuntza agerian jarri izan deneko urte kopuruaz biderkatzetako emaitza izango da.

Hirugarrena. Lehen erregelaren arabera eragiketa jakin bakoitzari aplikagarri zaion urteko portzentajea zehazteko, eta bigarren erregelaren arabera aipatu urteko portzentajea zein urte kopuruz biderkatu behar den zehazteko, balio gehikuntza agerian jarri zeneko aldia osatzen duten urtebeteak bakarrik hartuko dira kontutan, ondorio horietarako aipatu aldiaren urte zatikiak ezin izango direlarik kontutan hartu.

8. artikulua.

Lurren eskualdaketetan, haien sortzapen uneko balioa, une horretan Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako finkaturik duena izango da.

9. artikulua.

1. Jabaria mugatzen duten ondasun eskubideak eratu eta eskualdatzean, Eranskinean bildutako urteko portzentajeei buruzko laukia, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatu arauak aplikatuz



IRURAKO UDALA

kalkulatoriko eskubide horien balioa, hari doakiolarik, ordezkatzen duen 7. artikuluan definituriko balioaren zaitaren gainean aplikatuko da.

2. Eraikin edo lur baten gainean solairu bat edo gehiago eraikitzeko eskubidea, edo lurraren azpian, azalerako ondasun eskubiderik sortu gabe, eraikuntza egiteko eskubidea eratu edo eskualdatzean, Eranskineko urteko portzentajeen laukia eskualdaketa-eskrituran finkaturiko proportzionaltasun modulua edo, horren ezean, lurgainean edo lurraren azpian eraikitzeko solairuen azalera edo bolumena eta haiek behin eraikiz gero eraikitako guztizko azalera edo bolumenaren arteko portzentajea ezartzearen ondorioz lortutakoa, ordezkatzen duen 7. artikuluan definitu eta hari doakion balioaren zatiaren gainean aplikatuko da.

3. Beharrezko desjabetzapenak daudenean, bildutako urteko portzentajeen laukia lurraren balioari dagokion baliosoenaren zatiaren gainean aplikatuko da.

VII. TRIBUTU KUOTA

10. artikulua.

Zerga honen kuota, oinarri ezargarriari Eranskinean adierazten den karga tipo aplikatzearen emaitza izango da.

11. artikulua. Hobariak

Zergaren kuota osoaren %50eko hobaria ematea:

Lurren transmisioetan eta gozamenerako eskubide errealeen eskualdatze edo eraketan, hauek jabetzaren mugatzaile badira eta egin badira irabazizko erabilerarako heriotzagatik, ondorengoan ahaideen, adoptatuen, ezkontideen edo izatezko bikoteen alde, beti ere, eratuak izan badira erabakitakoaren arabera maiatzaren 7ko 7/2003 Legean, izatezko bikoteen eta aurreko ahaideen eta adoptatzaileen lege-arautzailean.

VIII. ZERGAREN SORTZAPENA

12. artikulua.

1. Data hauetan sortaraziko da zerga:

a) Lurraren jabetza bizien artean edo heriotzaren zioz eskualdatzen denean, kostubidez edo dohain izanik ere, eskualdaketa datan.

b) Jabaria mugatzen duen edozein ondasun eskubide eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa geratzen den datan.

Aurreko zenbakiko eraginetarako hurrengo hau hartuko da eskualdaketa datatzat:

a) Bizien arteko egintza edo kontratuetan agiri publikoa ematen denekoa eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo duen



IRURAKO UDALA

lanbidearen zioz funtzionario publiko batek ematen dituenekoa.

b) Heriotza ziozko eskualdaketa, sortzailearen heriotza data.

2. Ebazpen irmoazlurraren eskualdaketa edo beronen gaineko gozameneko ondasun eskubidearen eraketa edo eskualdaketa sortarazi zuen egintza edo kontratuaren balio gabetze, hutsalketa edo deuseztapena gertatu dela epaibidez edo administrazio bidez adierazi edo aintzatets dadinean, subjektu pasiboak ordaindutako zergaren itzulketa egin diezaioten eskubidea izango du, beti ere egintza edo kontratu horrek irabazpiderik eman ez badio eta itzulketa, ebazpena irmo hartu zenetik bost urtetako epearen barruan galda dezanean, irabazpiderik dagoelakotzat interesatuek Kode Zibilaren 1295. artikulua aipatu elkarrekiko itzulketak burutu behar dituztela bidezkotzen ez denean joko delarik. Egintzak edo kontratuak irabazpiderik sortarazi ez badu era, hutsalketa edo deuseztapena zergaren subjektu pasiboaren eginbeharrak ez betetzearen zioz adieraziz gero, ez da ezertan ere itzulketarik egongo.

3. Kontratu, alde kontratatzaileen elkarren arteko adostasunez ondoriorik gabe geratzen bada, ez da ordaindutako zerga itzuliko eta tributua ordaindu beharreko egintza berriz hartuko da. Elkarren arteko adostasuntzat adiskidetze egintzako adostasuna eta demandarekiko amoregile hutsa joko da.

4. Baldintzaren bat tarteko duten egintza edo kontratuetan, berauen kalifikazioa Kode Zibileko preskripzioen arabera egingo da. Etendurazkoa balitz, zerga ez litzateke likidatuko harik eta berau bete arte. Baldintza deuseztapenezkoa balitz, zerga exijitu egingo litzateke, noski, baldintza betetzen denean aurreko ataleko erregelaren arabera itzulketa egitearen erreserban.

IX. KUDEAKETA

13. artikulua.

Subjektu pasiboek Udal Administrazioaren aurrean aurkeztu beharko dute Zergagatik dagokien aitortpena, administrazioak emango duen eredu ofizialaren arabera non tributu zerrendako elementua eta kuota zehazteko beharrezko gainerako elementuak azalduko bai dira, kuotaren ordainketa aitortpena aurkezten den ekintza berean ordaindu beharko da.

14. artikulua.

Hurrengo epeetan aurkeztu beharko da aitortpena eta horretatik ateratako kuota ordaindu, zergaren sortzapena sortuko den datatik aurrera zenbatuko direlarik:

a) Bizien arteko egintzetan, epea 30 lanegunetako izango da.

b) Heriotzaren ziozko egintzetan, epean sei hilabetetako izango da, subjektu pasiboak horrela eskaturik urtebeteko mugaraino luzatu ahal izango delarik.

15. artikulua



IRURAKO UDALA

1.-Aitorpenari, nahitanahiez, ezarpena sortaraziko duten egintza edo kontratuak bilduko dituen agiria, behar bezala askietsia, erantsiko zaio.

2.-Eskatzen diren salbuespen edo hobariak, halaber, agiriz ziurtatu beharko dira.

16. artikulua.

Udal Administrazioak errekurritu ahal izango ditu pertsona interesatuak, Zergaren likidazioa burutzeko beharrezko erizten dituen bestelako agiriak aurkeztu ditzaten hogeita hamar egunetako epean, interesatuak eskaturik beste hamabost egunez luza daitekeelarik, epe horien barruan egindako errekimenduei erantzuten ez dietenek, dagozkien arauhauste eta tributu zehapenak izango dituzte, esandako agiriak aitorpena egiaztatu eta likidazioa ezartzeko beharrezko diren heinean. Esandako agiri horiek interesatuak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatzeko bitarteko hutsak balira, errekimenduari ez erantzuteak, alegatu bai baina zuritu gabeko zertzeladak kontutan hartu gabe likidazioa egitea ekarriko du.

17. artikulua.

12. artikuluan xedatukoaz at, jarraian adieraziko direnek, Udal Administrazioari jakinarazi beharko diote egitate ezargarriaren buruketa, subjektu pasiboen epe berberen barruan:

a) Honako ordenantza Fiskal honetako 6. artikularen a) hizkian bildutako kasuetan, beti ere bizien arteko negozio juridikoaren zioz sortarazikoetan, dohaintzat emalea edo ondasun-eskubidearen eratzaila edo eskualdatzaila.

b) Aipatu 6. artikularen b) hizkiko kasuetan, eskuratzaila edo ondasun eskubidea bere alde eratu edo eskualdatuta duen pertsona.

18. artikulua.

Era berean, Notarioek egutegiko hiru hilabeteko bakoitzaren lehen hamabostaldiaren barruan, egutegiko aurreko hiru hilabetekoan beraiek baimendutako agiri guztien zerrenda edo indize laburtua igorri behar izango dute nahitaez, bakoitzak bere udalari, haiek, dena den, esku-hartzaileen izan-diturak, nortasun agiri nazionala eta helbidea eta, agintzak bil ditzatenetan, zerga honen egitate ezargarriaren eginkizuna ageriko jar dezaten egintza edo negozio juridikoak bilduko dituztelarik, azken borondateko egintzen salbuespenarekin. Epe berberaren barruan ere jakinaren gainean egon edo izenpeak legeztatzeko aurkeztu izan zaizkien egitate, egintza edo negozio juridikoen zerrenda igorri behar izango dute. Atal honetan aurreikusitakoa Lurralde Historikoko Foru tributu Arau Orokorrean ezarritako lankidetzazko betebeharrak orokorrean kalterik gabe.

19. artikulua.

1. Udal Administrazioak aitortu izan ez diren egitate ezargarrien egintzaren jakinaren gainean dagoenean, 13. artikuluan aipatzen diren epeen barruan, interesatuei errekimendua egingo die aipatu aitorpena egin dezaten, tributu arauhaustapenen eta, hala



IRURAKO UDALA

balitz, dagozkien zehazpenen kaltetan gabe.

2. Udal Administrazioak aurreikusitako errekerimenduak bideratuta eta interesatuek dagozkien aitortpena aurkeztez ez badute, ofiziozko espedientea izapidetuko da, berak dituen datuekin, dagozkion likidazioa eginez eta, hala balegokio, dagozkion sartzen epeak eta errekurtsoen adierazpena azaldurik, tributu arauhaustapenen eta, hala balitz, dagozkien zehapenen kaltetan gabe.

20. artikulua.

Ezin izango da Jabetzaren Erregistroan terrenoen eta gainerako zergapeko ekintzen dokumentua inskribatu, aldez aurretik Zerga honen ordainketa edota, kausa balitz, kuoten ordainketaren atzerapena ez bada kreditatzen.

21. artikulua.

Ordenantza honetan erregulatzen den Zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagozkion orotan, era berean zerga urraketak kalifikatu eta kasu bakoitzari jarri beharreko zehapenak finkatzeko orduan, Foru Zerga Arau Orokorrean aurreikusitakoa izango da aplikagarri.

X. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurreko 8.1 artikuluan xedatu eraginetarako eta Ondare Transmisio eta Ekintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zerga onartzen duen Foru Arauak indarrean dirauen bitartean, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

1.a) Gozamen denboralaren balioa, ondasunen balioaren proportzioaren egingo da, urtebeteko epealdiko %2^a, %70^a gainditu gabe.

b) Biziarteko gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren %70ekoa dela eritziko da gozamendariak 20 urte baino gutxiago dituenean, eta hori gutxituz joango da, gehiagoko urte bakoitzeko %1aren proportzioan, balio osoaren %10eko mugarekin.

c) Pertsona juridiko baten alde egindako gozamena, 30 urtetik gorako eperako edo denbora mugatu gabe egongo balitz, eragin fiskaletara, ebazpen baldintzapeko jabetza osoko transmisioztat joko da.

2. Jabetza soileko eskubidearen balioa, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren desberdintasunean konputatuko da. Aldi berean denboralak diren biziarteko gozamenetan jabetza soila baloratzeko, aurreko bat zenbakiko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuko da.

3. Erabilera eta biziarteko eskubide errealeen balioa ezartzeko, gozamen denboral edo biziartekoan, kasuen arabera, balorazioari dagozkion arauak, horiek ezarriak izan zirelako ondasunen balioaren %75ari aplikatuko zaizkio.

XI. AZKEN XEDAPENA



IRURAKO UDALA

Ordenantza hau bere Eranskinarekin bertan adierazten datan behin betikoz onetsirik izan zen, 2009ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean segituko aldatzea edo derogatzea erabaki arte.

3 zenbakidun ORDENANTZA FISKALA: Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzekoa

ERANSKINA

I.PORTZENTAIA LAUKIA

Aldia Urteko portzentajea

5 urte arteko aldia %3,6

10 urte artekoa %3,4

15 urte artekoa %3,1

20 urte artekoa %2,9

II.TARIFA

Karga tasa: %7,5a

Ordenantza hau 2008ko urriaren 28an Udal Osoak onetsi zuen.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA



IRURAKO UDALA

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. KAPITULUA: Izaera eta zergagaia

1. artikulua.

1. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna zergapetzen duen zuzeneko tributua da, haien mota, kategoria, potentzia, edukiera eta karga edozein direla ere, eta zirkulazio baimenean ageri den helbidea Irurako udalerrian dagoenean exijitzen da.

2. Ibilgailua zirkulatzeko gai izango da bidezko erregistro publikoetan matrikulatua izan denean eta haietan oraindik baja emanda ez dagoenean. Aldi baterako baimena dutenak eta turismo matrikula daramatenak ere zirkulatzeko gai izango dira zerga honen ondorioetarako.

3. Ondoko hauek ez daude zerga honi lotuta:

a) Aspaldiko modeloak izateagatik erregistroetan baja emanda egon arren, kasu berezietan zirkulatzeko baimendu daitezkeenak haientzat antolatzen diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla-eta.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak, hauen karga erabilgarria 750 kilogramotik gorakoa ez denean.

II. KAPITULUA: Salbuespenak

2. artikulua.

1. Ondoko hauek daude Zergatik salbuetsita:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularrenak, eta atzerriko agente diplomatiko eta kreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularrenak, kanpoaldetik identifikatuta badaude eta beren mailan eta hedaduran elkarrekotasun baldintza betetzen bada.

Baita ere, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, hauek estatutu diplomatikoa dutenean.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Osasun laguntza emateko edo zauritu zein gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren



IRURAKO UDALA

anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak. Hau da, 350 kg-tik gorako tararik ez duten ibilgailuak, beren eraikuntzagatik toki lauan 45 km. orduko abiadura gainditu ezin dutenean eta arazo edo ezintasun fisikoren bat duten pertsonak erabiltzeko bereziki proiektatu eta eraiki direnean (eta ez bakarrik egokitu).

Era berean, salbuetsita daude minusbaliatuen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnean. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, lege 100eko 33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila dutenak izango dira pertsona minusbaliatuak.

f) Udalaren emakida administratibo bidez herri garraio zerbitzuari atxikita dauden autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, horien plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa denean.

g) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makineria, Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaz hornituta daudenean.

2. Artikulu honen 1 apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, interesatuek eskaera bat aurkeztu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko.

3. Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, ibilgailuen titularrek udalerrri honetan egon beharko dute erroldatuta, eta zergaz salbuesteko eskaera Udaletxeko Erregistro Orokorrean idatziz aurkeztu. Eskaerari honako agiriok erantsiko dizkiote:

a) Ibilgailuak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat direnean edo minusbaliatuen izenean eta horiek bakarrik erabiltzeko matrikulatuta daudenean:

— Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia

— Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.

— Gizartekintzak edo bere ordezkariak erakunde edo agintari administratiboak luzatutako ziurtagiri originala.

b) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta nekazaritzako makinak badira:



IRURAKO UDALA

- Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.

— Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaren fotokopia edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Nekazaritzako Makineriaren Erroldan alta hartu izanaren frogagiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean luzatua.

III. KAPITULUA: Subjektu pasiboak

3. artikulua.

Honako hauek dira zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisiko zein juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatutako entitateak, zirkulazio baimenean ibilgailua beren izenean ageri denean.

IV. KAPITULUA: Zergaldia eta sortzapena

4. artikulua.

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, salbu ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean. Horrelakoetan, zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da, eta Trafiko Buruzagitzan behin betiko baja ematen zaion egunean amaituko da.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

V. KAPITULUA: Zerga kuota

5. artikulua.

1. Eranskinean jasota dauden tarifen taulari jarraiki exijituko da zerga.

2. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean, kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, ibilgailua eskuratu edo baja ematen zaion hilabetea barne.

Ibilgailua lapurtzeagatik Erregistro Publikoan aldi baterako baja ematen zaionean ere kuota modu berean hainbanatuko da.

3. Aurreko apartatuko tarifak aplikagarri izango dituzten ibilgailu motak zehazteko, kontuan hartuko da abenduaren 21eko 114/1999 Foru Dekretua, hain zuzen ere, ibilgailu mota desberdinen kontzeptua ezarri eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak aplikatzeko arauak finkatzen dituena. Zehazki esanda:

— 1na. Zerga honen ondorioetarako, bere tarifetan zerrendatzen diren ibilgailu mota desberdinen kontzeptua abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen



IRURAKO UDALA

Erregelamendu Orokorra onartzekoak, II. eranskinean jasotakoa izango da.

— 2na. Furgoi edo furgonetek, ibilgailu misto moldagarriek eta turismotik eratorritakoek turismo gisa tributatuko dute beren potentzia fiskalaren arabera. Ez da horrela izango, ordea, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraiatu dezaketenean, kamioi gisa tributatuko baitute orduan.

— 3na. Autokarabanez turismo gisa tributatuko dute beren potentzia fiskalaren arabera.

— 4na. Edozein kasutan ere, tarifa horien D) letran adierazitako traktoreen errubrika orokorrak honako hauek ere hartzen ditu: «traktokamioiak», «obra eta zerbitzuetako traktoreak» eta trakzio mekanikoko beste ibilgailuek garraiatu edo eramanak izan gabe bide publikoetatik zirkula dezaketen makina autobultzatuak.

— 5na. Hiru gurpileko ibilgailuak eta kuartrizikloak motozikletatzat hartuko dira zerga honen ondorioetarako eta, beraz, beren zilindradaren arabera tributatuko dute. Kuartriziklo arinek, beren aldetik, ziklomotore gisa tributatuko dute.

— 6na. Ibilgailu artikulatuen kasuan, arrasteko potentzia daramak eta arrastean eramandako atoei eta erdiatoiei aldi berean eta bereizita tributatuko dute.

— 7na. Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, V. eranskinean xedatutakoaren arabera ezarriko da.

VI. KAPITULUA: Hobariak

6. artikulua.

1. Izaera orokorrez, hobaria eskaera egin ondorengo ekitalditik aurrera hasten da aplikatzen, eta ez du atzerako eraginik. Dena den, onura fiskala likidazioa irmoa izan baino lehen eskatzen denean, onura emango da baldin eta hobaria jasotzeko baldintzak zerga sortzen den egunean betetzen badira.

Hobaria interesatuek eskatu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak hobaria onartu ondoren, agiri bat luzatuko du eman dela frogatzeko.

2. Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzintasuna dutenek % 100eko hobaria izango dute zerga kuotan. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

25 urte baino gehiago dituztenei udalak ofizioz aplikatuko die salbuespena.

VII. KAPITULUA: Kudeaketa eta likidazioa



IRURAKO UDALA

7. artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den helbidea bere udalerrian dagoenean, zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea, eta orobat, zerga kudeaketan emandako egintzak berrikustea Irurako Udalaren ardura da.

8. artikulua.

Matrikulazioaren eta zirkulatzeko baimenaren ondorioz zergan alta hartzen duten ibilgailuen kasuan, autolikidazio erregimenean kudeatzen da zerga, eta gainontzeko ibilgailuen kasuan, berriz, Udalak urtero egiten duen Erroldaren bidez.

Aitorpen-likidazioak Udaletxean aurki daitezkeen inprimaki normalizatuak erabiliz egingo dira. Aitorpen-likidazio horiek kalkulurako beharrezkoak diren elementuak jasoko dituzte, eta agiri hauek erantsita aurkeztuko dira: ibilgailua erosi edo aldatu izanaren frogagiriak, ezaugarri teknikoaren ziurtagiria eta subjektu pasiboaren Nortasun Agiria edo Identifikazio Fiskaleko zenbakia.

Aitorpen-likidazioa behin bere esku duela, interesatuak bulego kudeatzailean edo entitate laguntzaile batean ordaindu ahal izango du zerga kuotaren zenbatekoa. Edozein kasutan ere, ibilgailua matrikulatu baino lehen, bulego kudeatzaileak egiaztatuko du ordainketa behar den zenbatekoagatik egin dela, eta aitorpen inprimakia egiaztatu izana adieraziko du.

9. artikulua.

1. Trafiko Buruzagitzari ibilgailuaren matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasun agiria edo behin betiko baja eskatzen diotenei Zerga ordaindu izana frogatu beharko dute alde zurretik.

2. Ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari haien erreformaren berri ematen diotenean, Zerga honen eraginetarako duten sailkapena aldatzen bada betiere, eta orobat, ibilgailuak transferitu, zirkulazio baimenean ageri den helbidea aldatu edo horiei baja ematen dietenean, zergaren azken ordainagiria ordaindu izana frogatu beharko diote aurrez Trafiko Buruzagitzari. Horrek ez du eragotziko, dena den, kontzeptu horregatik sortu, likidatu, kobrantzara aurkeztu eta preskribitu ez diren zor guztien ordainketa kudeaketa eta ikuskaritza organoen bitartez exijitu ahal izatea.

Hamabost urteko edo hortik gorako antzinatasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak ordainketa frogatzeko obligaziotik kanpo geratzen dira.

3. Trafiko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen baja edo transferentzia espedienterik izapidetuko, aurretik Zerga ordaindu izana frogatzen ez bada.

VIII. KAPITULUA: Betebehar formalak eta zerga arlokoak

10. artikulua.

Zerga honi lotutako ibilgailuen titularrek beharrezko tramiteak egin beharko dituzte



IRURAKO UDALA

Trafiko Buruzagitzan zirkulazio baimenean agertzen den helbidea beren ohiko egoitzakoa izan dadin.

IX. KAPITULUA: Erroldak

11. artikulua.

1. Matrikulatuta dauden edo zirkulatzeko gai diren ibilgailuen kasuan, zergaren urteko kuotak urte bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barruan eta Udalak erabakitzen duen kobrantza aldian ordainduko dira. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ediktuak argitaratuz eta legeriak aurreikusten dituen edo egoki jotzen diren bestelako baliabideak erabiliz emango da horren berri.

2. Aurreko apartatuan araututako kasuan, urteko errolda erabiliz bilduko dira kuotak. Erroldaren aldaketak Trafikoko Erregistro Publikoaren datuetan oinarrituko dira.

3. Errolda edo zergaren matrikula jendaurrean erakutsiko da interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Horretarako epea hamabost eguneko izango da, kobrantza aldia hasten denetik aurrera.

Jendaurreko erakusketaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta subjektu pasibo bakoitzari likidazioa jakinarazteko balio izango du.

X. KAPITULUA: Itzulketak

12. artikulua.

Ibilgailuari zerga sortu ondoren ematen bazaio behin betiko baja eta, ordurako, kuota ordainduta badago, subjektu pasiboak dagokion zenbatekoaren itzulketa eskatu ahal izango du Ordenantza Fiskal honen 5.2 artikuluan aipatzen den hainbanaketa aplikatuta.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki, zerga honi Zergen Foru Arau Orokorrak kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari buruz nahiz zerga urraketa eta zigorrei buruz jasotzen dituen arauak aplikatuko zaizkio.

AMAIERAKO XEDAPENA.

Ordenantza honek eta bere eranskinak 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak eta indarrean jarraituko dute horiek indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzeko aurreko Ordenantza Fiskala Indargabeturik geratzen da.



IRURAKO UDALA

ERANSKINA:

Ibilgailu mota eta klase ezberdinentzako ondoren adierazten diren kuotak ezartzen dira:

TARIFAK

TURISMOAK	(€)
9 zaldi fiskaletik behera	31,00
9tik 11,99ra	63,00
12tik 13,99ra	105,00
14tik 15,99ra	147,00
16tik 19,99ra	189,00
20tik gora	231,00
AUTOBUSAK	
21 eserleku	148,00
21etik 50era	207,00
50 baino gehiago	259,00
KAMIOIAK	
1000 kg-tik behera	74,00
1000 kg-tik 2999 kg-ra	145,00
3000 kg-tik 9999 kg-ra	207,00
10000 kg-tik gora	259,00
TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskaleraino	36,00
16tik 24,66ra	52,00
25etik gora	145,00
IBILGAILUEN ATOIAK	
75 kg-tik 1000 kg arte	36,00
1000 kg-tik 2999 kg arte	52,00
3000 kg-tik gora	145,00
BESTELAKO IBILGAILUAK: MOTOR ETA ZIKLOMOTO-REAK	
ziklomotoreak	9,50
125 cc arte	9,50
125etik 250 arte	15,50
250etik 500 arte	31,00
500etik 1000 arte	57,00
1000tik gora	106,00

2008ko urriaren 28an egindako Udal Osoko bilkuran onartu zen Ordenantza Fiskala.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA



IRURAKO UDALA

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 5 ZENBAKIDUN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honetako, Toki Ogasunak dituen Lurralde Historikoko Foru Arauen eta tributuari dagokion Foru Arauen aurreikusitakoaren arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ezarri eta exijitzen du, Ordenantza honi jarraiki, tarifa aplikagarriak dituen Eranskina parte delarik.

1. artikulua.

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

II. EGITATE EZARGARRIA

2. artikulua.

Lan edo hirigintza lizentzia behar duen ezein eraikuntza, instalazio edo obra egitea dugu egitate ezargarrria, lizentzia hori jaso edo ez arren, baldin eta lizentzia ematea Udal honi badagokio.

4. artikulua

Zergapeko egitate ezargarrria, banan-banan adieraziz, ondorengoek osatzen dute:

1. Solairu berridun mota guztietako eraikuntza edo instalazioetako eraikitze-obrak.

2. Dauden mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak.

3. Dauden mota guztietako eraikuntza eta instalazioen estrikturan eragin dezaketen aldaketa edo erreformazkoak.

4. Dauden mota guztietako eraikuntza eta instalaziooen kanpoko itxurin aldaketa dakarkienak.

5. Eraikuntzen barne antolamendua aldatzen duten obrak, beraien erabilera edozein delarik.

6. Lurraren Legeko testu bateratuko 58. artikuluko 2. atalean azaltzen diren eta behin-behineko izaerarekin egin behar diren obrak.



IRURAKO UDALA

7. Zerbitzu publikoen instalazioetarako obrak.

8. Lur higidurak, hala nola lurrerauzketk, lauketak, indusketa eta lurreztaketa, egintza horiek onartu edo baimendutako Hirigintza edo Eraikuntza Proiektuaren batean egin beharreko obratzat zehaztu eta programatuta leudekeenean salbuetsiz.

9. Eraikuntza erauzketa, aurri zorian daudela aitortuetan salbu.

10. Aparkaleku, industria, merkataritza edo lanbide jarduera, zerbitzu publiko edo lurrazpiari eman zaion beste erabilera batzuetara bideratutako lurpeko instalazioak.

11. Bide publikotik ikusteko moduan egiten den propaganda kartelen jarketa.

12. Gaitasun ekonomikoa eta obra eta hirigintza lizentziapean egotea suposatzen duten eta errekurso ekonomikoen inbertsioa dakarkien edozein obra, eraikuntza edo instalazioak.

a) artikulua.

Zerga honen pean ez dira egongo Udal honi dagokion titularitate dominikaleko higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, obraren jabe izateko baldintza Udalak betetzen badu.

III. SUJETU PASIBOAK

b) artikulua

1. Eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisiko, pertsona juridiko eta Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak dira, zergadun gisa, Zerga honen subjektu pasiboak, horiek egiten diren ondasun higiezinaren titularrak izan edo ez.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, lanek sortarazten dituzten gastuak edo kostua jasaten dituen izango da eraikuntza, instalazio edo obraren jabea.

7. artikulua

1. Zergadunaren ordezkotik sujetu pasibo eritzeko zaio dagozkion lizentziak eskatu edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egin ditzanari, zergaduna bera ez bada.

2. Nolanahi, Udal Administrazioak zergapekoaren ordezkotik exikitu ahal izango dio zergapeko izaera duen pertsona edo entitatearen identitatea eta helbidea.

IV. OINARRI EZARGARRIA

8.artikulua

1. Zergaren oinarri zergagarria eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuak



IRURAKO UDALA

osatzen du.

2. Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, interesatuek aurkeztutako exekuzio materialaren aurrekontua onartuko da, baldin eta dagokion Elkargo Ofizialak ikusinetsita badator.

3. Aurreko atalean adierazitako berezitasunak jasotzen duen aurrekonturik ez badago, hala nola aginduzko baimenarik lortu ez duten eraikuntza, instalazio eta obra guztien kasuan, Udal Zerbitzu Teknikoek erabakiko dute oinarri zergagarria proiektuaren batz besteko kostuaren arabera.

V. ZERGA KUOTA

9. artikulua.

Oinarri ezargarriari Eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuz aterako da zerga honen kuota.

VI. SORTZAPENA

10. artikulua

Zergaren sortzapen eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan geratzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

VII. KUDEAKETA

11. artikulua.

Aginduzko lizentzia ematerakoan behin-behingo likidazioa egingo da, oinarri ezargarriak doakienek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko dela, baldin eta aurrekontu hori dagokion Elkargo Ofizialak ikuskatua bazen; horrela ez bada, edo lizentzia lortu ez denean, udal-teknikariek, egitasmoari antzemandako kostuaren arabera, zehaztuko dute oinarri ezargarria.

12. artikulua.

Dagokion lizentzia eman ondoren lehen proiektua aldatuko balitz, behin-behineko likidazio berri bat egiteko presupostu berria aurkeztu beharko da lehen presupostua garestitzen denaren arabera.

13. artikulua.

1. Benetako egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren egibenetazko kostua ikusiz, Udal Administrazioak, bidezko administrazio egiaztapena eginda, aldatu egingo du, hala badagokio, aurreko atalean aipatzen den oinarri ezargarri, dagokion behin-betikoko likidazioa eginez, eta dagokion zenbatekoa sujetu pasiboari eskatuz edo, hala



IRURAKO UDALA

gertatuz gero, itzuliz.

2. Aurreko atalean ezartzen denerako, obra bukatu edo berau behin-behinerako hartu eta ondorengo lehen hilabetearen barruan, zirkunstantzia honen aitortpena aurkeztuko da Udal Administrazioak eskuratuko duen inprimakian, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiriarekin, dagokion kolegio profesionalak ikustatua, hau egin ahal denean, eta bertan zertifikatu beharko da obraren kostu totola, proiektu eta zezendaritzaaren eskubide fakultatiboak, industrial onura eta obraren ondorioz egon daitezkeen beste batzuk sartuz.

14. artikulua.

Zergaren likidaziorako, administrazioak lizentzia emateko isiltasun positiboa erabiliko balu, lizentziak, hau espreski emango balu bezala balioko du.

15. artikulua.

Ordenantza honetan erregulatutako Zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokienez, era berean zerga urraken kalifikazioa eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenak erabakitzeari dagokienez, Foru Zerga Arau Orokorrean aurreikusitakoa izango da aplikagarri.

16. artikulua.

Lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakiko balu, idatzi bidez espreski adieraziz, Udalak eginiko behin-behineko likidazioa itzuliko du edo bertan behera utziko.

17. artikulua

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuliko du edo bertan behera utziko, titularrak berritzea eskatu esta udalak baimenik ematen ez badu.

VIII AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau bere Eranskinarekin batera, bertan adierazten den datan behin betikoz oniritzirik izan zen, 2009ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean segituko aldatzea edo derogatzea erabaki arte.

5 zenbakidun ordenantza fiskala: eraikuntza, instalazio eta obraren gaineko zerga arautzekoa

ERANSKINA

1) Karga tasa

Eraikuntza, Instalazio eta Obraren gaineko Zergaren juoten taula, honela geldituko litzatekeelarik:



IRURAKO UDALA

-Edifizio berriak eraikitzea, bai etxebizitzak zein industriariak edo beste edozein erabilpenentarakoak eta daudenak handitzeko obrak: %5

-Aurrekoaren berdina ez den edozein eratako obra, eraikuntza edo instalazioa: % 3

-Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Etxebizitza Sozialak eraikitzeako Obrak: %2

-Eraikitako Ondarearen Berregokipen Obrak: %2.

-3.000 €ko baino aurrekontu txikiagoa duen eraikuntza, instalazio eta obrak; %0

-Proiektu Teknikorik behar ez duten etxe-barruetako Obrak: %0

-Etxebizitzadun edifizioen etxeurreak margotzea: %0

2) Hobariak

a) %90eko hobaria, eraikuntza, instalazio edo borerik pertsona ezinduen irigarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

b) %50eko hobaria, (igogailuak) etxebizitza-eraikinetako sarbidea eta bizigaitasuna hobetzeko eraikuntza, instalazio eta obretan.

Hobaria, subjektu pasiboek eskatu beharko dute eta zergagai bakoitzeko hobari bakarra ezarriko da.

Ordenantza hau 2008ko urriaren 28an Udal Osoak onetsi zuen.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA



IRURAKO UDALA

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak, arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Erans-kinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxa-mendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3 artikulua.

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren aprobetxamendu bereziak eratzen du zergagaia.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

2. Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien aprobetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekotan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3. Estatua, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen aprobetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.

5. artikulua.

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, aprobetxamenduaren onuradun direnek.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK



IRURAKO UDALA

6. artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onurak fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

7. artikulua.

Oinarri ezargarrria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzaten den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI.KUOTA

8. artikulua.

1.Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedura batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

Lizitazio publikoko prozeduretan tasaren kopurua kontsezio, baimen edo esleipenean jasotzen den kopuru ekonomikoagatik ezarriko da.

2.Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldeztatik aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalte-ordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalte-ordainak edo diru-itzulketak.

VII.SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9 .artikulua.

1.Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaien izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientearen ez da izapidetuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldia urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo



IRURAKO UDALA

da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3. Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10 artikulua.

Entitate lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

11. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 2008ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA

ZERGA-ORDENANTZA ESPALOIETATIK ERAIKINETARA IBILGAILUAK SARTZEKO ETA HORRETARAKO BIDE PUBLIKOKO APARKALEKUAK ERRESERBATZEKO TASARENA.

PREZIOAK:

Erabilpen pribatuko garajeak	25 € metro lineal edo zati bakoitzeko
Garaje kolektiboak	
6 ibilgailutik 25 ibilgailura	40 € metro lineal edo zati bakoitzeko
25 ibilgailutik 50 ibilgailura	80 € metro lineal edo zati bakoitzeko
50 ibilgailutik aurrera	120 € metro lineal edo zati bakoitzeko

APLIKAZIO ARAUAK

1.- Espaloiko pasabideen zabalera, espaloiak beheargunea daukanean jaitsitako zintarriak dituen metro linealen arabera zehaztuko da. Espaloiko zintarria jeitsirik ez balego eta espaloia kendu gabe, lokalera edo orubera sartzeko hutsunearen luzera erabilgarria hartuko da neurritzat.



IRURAKO UDALA

2.- Pasabideak jarri, mantendu, erreformatu nahiz kentzeko eta aparkalekuen erreserbarako hala nola horien seinalizaziorako gastuak, eskatzaileen kontu eta kargura izango dira.

Lizentzian jabeek Udaletxean jaso beharko dituzte probetxamendua seinaleztatzeko plaka arauzkoak. Plaka horietan baimenaren erregistro zenbakiak agertu beharko du eta iraunkorki instalatuko dira.

Plakak ez jartzeak edo arautu gabeko beste batzuk erabiltzeak, probetxamenduaren eskubideak betetzea galeraziko die lizentzian izendunei

3.- Eragin fiskaletarako sarbidetzat edo pasabidetzat, ibilgailuek lokalera edo lursolaitura sartzeko erabakitzen dituzten sarbide guztiak hartuko dira.

UDALAREN HERRI ERABILERAKO TERRENOAK HARTZEA MERKANTZIAK, ERAIKUNTZA MATERIALAK, OBRA HONDAKINAK, HESIAK, PUNTELAK, EDUKIONTZIAK, ALDAMIOAK ETA ANTZEKO BESTE INSTALAZIO BATZUK JARRIAZ

Aldamioak: 2,5 metroko altuera eta pasaleku babestua	0,20 € metro lineal edo zati bakoitzeko
Bide publikoaren okupazioa	0,30 € m ² edo zati bakoitzeko
Edukiontzia	0,60 € m ² edo zati bakoitzeko

Udal Osoak 2008ko azaroaren 20an onartu zuen Ordenantza.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA



IRURAKO UDALA

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

I.XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II.ZERGAGAIA

3. artikulua.

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III.SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1.Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a)Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b)Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate seguratzailak.

c)Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. artikulua

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a)Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b)Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.



IRURAKO UDALA

6. artikulua.

Ordenantza honetatik eratorzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V.OINARRI EZARGARRIA

8. artikulua.

Oinarri ezargarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI.KUOTA

9. artikulua

1.Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII.SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua

1.Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

2.Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori epealdiaren lehen egunean gertatuko da, zergaldia Eranskinean ezartzen da. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

VIII.LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX.TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X.AMAIERAKO XEDAPENA



IRURAKO UDALA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 2005eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

1.- UDAL ADMINISTRAZIOAK, INTERESATUAK ESKATURIK EGIN EDO EMANDAKO AGIRIEN TASAK.

-Fotokopiak: -alde batetik 0,15€.

-Fotokopiak: bi aldeetatik 0.25€.

-A-4 handiagoa: 0,25€

-Fax: 2,00€/orriko.

2.-UR ORNIDURAREN TASAK

Udalbatzak, 201ko azbenduaren 20ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin batera eskaintzea eta kontsorziatuan, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera

Halaber, onartu zituen Uraren ziklo osoari dagokion zerbitzua arautzen duen ordenantza eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera Gipuzkoa Ur Kontsorzioak onartu dituen tasak.

3.-ETXEKO ZABOR BILKETAREN TASA

Etxe bakoitzeko hiruhileko.....	16 €
Denda eta 3 ibilgailu baino gehiagoko garajeak, hiruhileko.	28 €
Elkarte eta tabernak	36 €
5 langile arteko lantegiak	47 €
5eta 20 langile bitarteko lantegiak	71 €
20 langile baino gehiagoko lantegiak	121 €
Dantzalekuak, diskotekak eta antzekoak	390€
Orokorrean beste unitateak	16 €

4.-ESTOLDERIA ZERBITZUAREN TASA

Udalbatzak, 201ko azbenduaren 20ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin batera eskaintzea eta kontsorziatuan, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera

Halaber, onartu zituen Uraren ziklo osoari dagokion zerbitzua arautzen duen ordenantza eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera Gipuzkoa Ur Kontsorzioak onartu dituen tasak.

5.- UDAL HILERRIKO KONTZESIO ETA ZERBITZUEN TASA

Nitxoen kontzesioa 10 urtetarako.....	250 €
Ehorzketa / lurperaketa nitxoan.....	250 €
Ehorzketa / lurperaketa panteoian.....	360 €
Jaiegunetan	%50



IRURAKO UDALA

6.- TRINKETEA ETA FRONTOIA ERABILTZEKO TASA

a) aldez aurretik hartutako orduak:

Irurako herritarrentzat:

Ordu 1 argiakin.....	7,21€
Ordu 1 argirik gabe.....	5,41 €
Ordu eta erdi argiakin.....	9,02 €

Irurakoak ez direnentzat:

Ordu 1 argiakin:.....	9,02€
Ordu 1 argirik gabe.....	7,21€
Ordu eta erdi argiakin.....	12,02 €

b) aldez aurretik ordurik hartu gabe:

Irurako herritarrentzat

Ordu 1 argiakin.....	3,01€
Argirik gabe.....	0 €

Dutxa erabiltzea tarifen barruan sartua dago.

c) Dutxa bakarrik erabili nahi bada edo tarifarik gabeko orduaren ondoren dutxatu nahi bada:0,60 €

Trinketea erabiltzeagatik ez dute ordaindu beharrik izango, udal pilota eskolako erabiltzaileek, eskolako edo irakaskuntzako erabilpena ematen dietenek eta, udal arautegiak ezarritako gainontzekoek.

Adierazitako tarifa hauek ez zaizkie jarriko trinketea kirol lehiaketa edo ikuskizunetarako edo beste era betekoetarako erabiltzen dutenei, hauei, dagokion baimena emateko udal erabakiak ezarritako eran arautuko baizaie erabilpena.

7.- UDAL EUSKAL PILOTA KIROL-ESKOLAREN TASA

-Ikasturteko matrikula:... 30,00 €

8.- UTZITAKO-ANIMALIAK JASOTZEAREN TASA.

-Lan-egunetan:..... 42,07 €.

-Jai-egunetan:..... 58,08 €.



IRURAKO UDALA

Egonaldia dagokion zaintze-etxean: 42,07 €.

Eutanasia edo errausketa: 24,08 €.

9.- ESTABLEZIMENDUA IREKITZEKO LIZENTZIAREN TASA

Jarduera berriak haunditzeko, aldatzeko edo lekualdatzeko ondorengo tasak ordaindu beharko dira:

300 m ² rainoko jarduerak	600 €
300 m ² tik 500 m ² rainokoak	900 €
501 m ² tik 1000 m ² raionokak	1.200 €
1001 m ² tik 1500 m ² raionokak	3.000 €
1501 m ² tik 5000 m ² raionokak	5.000 €
5000tik gorakoak	7.500 €

Salbuetsitako jarduerak badira, adierazitako tarifen %50 ordainduko dute.

Titulartasuna aldatuz gero, adierazitako tarifen %20 ordainduko dute, eta nolana ere, gutxienez, 60€

10.- KIROL ETA KULTURA ZERBITZUEN TASA

A) IKASTAROAK.

-Matrikula: 30 €

B) UDALEKUAK.

- Matrikula hilabeterako: 60 €.

- Matrikula hilabete erdirako: 30 €.

Senide bat baino gehiagok parte hartuz gero:

2 senide: %40ko murrizketa.

3 senide edo gehiago: %50koa.

11.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN TASA

- Ordu arrunta: 18,70 €.

- Jai eguneko ordua: 22,62 €

ONURADUNAK; GAI edo MENPEKO diren onuradun guztiei 72/2002 FORU DEKRETUAN zehazten den baremoa aplikatu ondoren ematen duen ekarpena. (72/2002 FORU DEKRETUA erantsirik).



IRURAKO UDALA

Zerbitzua ez badu onuradunak (edo norbaitek bere izenean) eskatzen, ez zaio ekarpenik kobratuko egoera erregulatu bitarte.

12.- HIRIGINTZA-LIZENTZIAK ETA BESTE EXPEDIENTE MOTA BATZUK BIDERATZEKO TASA:

- Lehen okupaizo lizentzia:

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren bidez ordainarazitako kuotaren % 7,5.

- Hirigintza konsultak:

Idatzizko edozein txosten teknikoa	60,00 €
Lur-zatiketa (partzelazio zein segregazioak	100,00 €

Ekimen pribatuaren bidez sustatutako udalaren iharduera:

Birpartzelazio proiektuak, Xehedapen azterlanak, plan partzialak, barne-erreformarako Plan Bereziak, urbanizazio proiektuak, jardunbide programak eta beste zenbait planeamenduko eta kudeatzeko figura eta bere aldaketak izapidatzeagatik: 1.500 euro.

Udal Osoak 2011ko abenduaren 20ko batzarrean onartu zuen Ordenantza eta Eranskina.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA